



**OÑATI**  
dabilen herria



**ALKATE-DEKRETUA**

**Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:**

**Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzea eta behin-behineko merezimenduak argitaratzea (2026AOPE0005)**

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Udaleko Pertsonal eta barne-antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente-zk.:..... 2026AOPE0005

Espedientearen helbidea:..... OÑATI

Gaia:..... Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzea eta behin-behineko merezimenduak argitaratzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

**Gertakariak:** 2026ko martxoaren 13ko 476 alkate-dekretuaren bitartez Oñatiko Udaleko 2026ko arte udalekuetarako begiraleak kontratatzeko deialdi eta oinarriak onetsi ziren eta berauek argitaratzea erabaki.

Izena emateko epea igarota, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratu behar dira eta horiekin batera merezimenduen behin-behineko emaitzak. Hautagaiek zuzentze-eskaerak egiteko aukera izango dute.

**Proposamena:** Oñatiko Udaleko 2026. urteko arte udalekuetako begiraleen behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak eta behin-behineko merezimenduak (I. Eranskina) onartu eta argitaratzea eta bost eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko.”

Goiko txostenak dioena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, **erabaki dut:**

**Lehenengoa.-** Oñatiko Udaleko 2026. urteko arte udalekuetako begiraleen behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak eta behin-behineko merezimenduak onartu eta argitaratzea.

**Bigarrena.-** Erreklamaziotarako bost egun baliodun ematea, zerrenda hau Oñatiko Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioetarako epea amaituta, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak eta merezimenduen behin betiko zerrendak argitaratzea.



**OÑATI**  
dabilen herria

**Laugarrena.-** Ebazpen hau [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

**Bosgarrena.-** Hala justifikatu ez dutenei, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko idatzizko azterketa maiatzaren 11n, astelehena, egiteko aukera ematea hala nahi eta behar duten hautagaiei, Gaztelekuan 14:30ean.

### I. ERANSKINA

Onartutako izangaiak:

NAN	Hizkuntza-eskakizuna dauka	BHBH merituen puntuazioa
***3309**	Egiaztatua	13
***2684**	Egiaztatua	11,5
***4348**	Egiaztatua	7
***4234**	Egiaztatua	4,5
***7661**	Egiaztatua	4,5
***7746**	Egiaztatua	4,5
***4839**	Egiaztatua	3,5
***5109**	Egiaztatua	2,5
***3036**	EZ	2
***3398**	Egiaztatua	2
***4876**	Egiaztatua	1

Baztertutako izangaiak:

NAN	Arrazoia
***1820**	Titulaziorik ez

**Honela jasota geradin eta bere ondorioak izan dizan, hau sinatu dut,**

Oñatin, 2026ko maiatzaren 4an  
Alkatea  
Izaro Elorza Arregui